




6. **Errenazimentua Italian. Mugimendu humanista. XV-XVI. mendean**, gizakia izaki ahalguztiduntzat jotzen zuten; garapenerako gaitasun mugagabeduna, eta jendea animatzen zuten ezagutzaren esparru guztietan trebatzera eta beren gaitasunak erabat garatzera.

- **Edertasun-kanon greko-erromatarrari lotuta edertasun eta perfekzioaren bilaketa.**
- **Ezagutza berriak bilatzea.** Munduaren funtzionamendua ulertzen saiatu ziren, eta horretarako ikerketa eta behaketa oinarri zituen lanketa analitikoa erabili zuten. Orduan sortu ziren egun ezagutzen ditugun zientzia askoren lehen ekarpenak: biologiarenak, astronomiarenak, anatomiarenak, fisikarenak...
- Zientzia eta arrazoia balioestea. Natura- eta gizarte-gertakarien azalpen arrazionalak bilatzen dira, erlijio kontuak bazterrean utziz. Zentzu horretan paradigmaticoa izan zen Galileo Galilei fisikari eta astronomoak izandako liskarrak, zalantzan jarri baitzituen garai hartan indarrean zeuden ideiak, orduan pentsatzen baitzuten Lurra zela eguzki-sistemaren erdigunea.
- **Etika.** Toki garrantzitsua eman zitzaien balio etiko sakonenei, besteak beste, errespetuari, askatasunari, solidaritateari, justiziarri, ohoreari eta maitasunari.
- **Optimismoa.** Balioespen berezia egiten zaio lurreko bizitzari betiereko bizitzaren aurrean; hortaz, Errenazimentuko gizakiak hemen eta orain gozatu nahi du, *carpe diem* (bizi oraina) esaera ezagunean ederki islatzen den sentimendua. Mundua intentsitate handiz bizitzeko lekua bilakatzen da.

- **Babes ekonomikoak artistei.** Artea, giza sorkuntza gisa, goraipatua izan zen, eta laguntza ekonomikoak eskaintzen hasi ziren egoera onean bizi ziren pertsona edo taldeek; artisten lanak diruz laguntzen zituzten. “Mezena” izenez ziren ezagunak. Modu horretan, artea sustatzeaz gain, prestigio soziala eta botere politikoa eskuratzen zuten pertsona horiek.
- **Burgesiaren hazkuntza.** Pixkanaka, Erdia Aroan sortutako burgesia gero eta ahaltsuago eta eraginkorragoa bilakatu zen, eta feudoetako lur-jabeak baztertu egin zituzten.
- **Lehen bankuak sortu.** Merkataritza-jardueraren garapenak ekarri zuen maileguak emateko beharra; horrela sortu ziren lehen bankuak.
- **Ezagutza unibertsal baten bilaketa. Polimatia edo ezagutza artearen eta zientziaren hainbat esparrutara aplikatua.** Leonardo da Vinci “Errenazimentuko gizona” da zalantzarik gabe, bere ibilbidea historian margotu eta marraztu zuen maisua. Haren marrazki ezagunenek gizakiaren anatomia irudikatzen dute; **Vitruvio Gizona** ikonikoa, besteak beste, artea eta zientziaren arteko konbinazioa da, eta eredu argia jakiteko Leonardok nola ulertzen duen proportzioa. Giza **anatomia**ren xehetasun txikinetik unibertsoko konstelazio urrunetaraino, Leonardok **natura** eta **zientzia** zalantzarik gabe konektatuak ikusten zituen.



**Vitruvio gizona, 1490**

